


Noaua!!



Ostegun honetan, afari
berezia Aialde Berrin

Abenduaren 17an
Santo Tomas azoka



Etorri
ezagutzera

Otar-Goxo
Elizagaia



HARATEGIKO BEREZITASUNAK:

TXAHAL AZPIZUNA, BEHI AZPIZUNA,
ESNEKO ARKUMEA, TXERRIKUMEA,
ANTXUMEA, KAPOIA, PULARDA, EHIZA,
ROSBEEF, ENTREKOTA (1kg)...

URDAITEGIKO BEREZITASUNAK:

FOIE FREKKOA, AHATE MAGRETA,
AHATE KONFITA, MIKUIT, IZOKIN
NATURALA, URDAIZPIKO IBERIKOA,
MIXERA BUDINA, LEGATZ BUDINA ...



FRUTADENDA BEREZITASUNAK:

ORAIN PRODUKTU
EKOLOGIKOAK ERE BAI

Zorionak eta eguberri on!

Zubiaurrenea, n°2 • ☎ 943 36 55 81 • 20170 Usurbil

KINKILDEGIA

*Zorionak eta
urte berri on!!*

*Mila esker
etortzeagatik*

MAHUKA

erropa denda



**Gabonetako
eskaintza
%20**

Etxebeste, 3
USURBIL
☎ 943 361 106

LIZARDI LIBRYDENDA



Liburuak, aldizkariak, musika,
opariak, eskola materiala,
enkuadernazioak eta fax zerbitzua

Etxebeste kalea, 1
Tlf: 943 36 11 15

Badok Amairu !!

Mikel Elexpe: "Familiarik gabe ezingo nuke bizi"

Su artean, iluntzean bezeroek dastatuko zituzten pintxoak egiten harrapatu dugu Mikel. Injustiziekiko kezka, familiak beretzat duen garrantzia edota Ekuadorrekiko duen lotura azaleratu ditu.

1. JAKIRIK GOGOKOENA.

Arrautza, edozein modutan egina.

2. OHITURA TXARREN BAT.

Ispilura begiratzea.

3. ZER GORDETZEN DUZU SAKELEAN?

Famili argazkia.

4. ZERTAN BERPIZTUKO ZINATEKE?

Munduko injustiziak (gosea, gerrateak...) gaindituko lituzkeen pertsona batengan.

5. ZERI DIOZU BELDURRA?

Gaixotasun luzeei, eta zahartzaroan maitatua ez izateari.

6. MIRESTEN DUZUN PERTSONA.

"Hermano Angel Pastrana". Bere bizitza Ekuadorren besteen alde eman due-lako; haur pobreen alde...

7. EZIN ZAITEZKE BIZI...

Familiarik gabe.

8. EGINDAKO EROKERIA HANDIENA.

Larunbat arratsalde batean Madrilera afaltzera joan eta igande goizerako Usurbilen txakolina edaten egotea.

9. LIBURU BAT.

"No sin mi hija".

10. FILM BAT.

"El príncipe de las mareas".



11. LEKU BAT.

Ekuador eta Euskal Herria. Oso ondo ezagutu eta zaindu nautelako.

12. HERRIKO LEKURIK EDERRENA.

Andatza.

13. URTARO BAT.

Udazkena.

Noaua!!

NOAUA! Kultur Elkarte BORDABERRI 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
Tlf: 943 36 03 21 / elkarte@noaua.com / www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkarte@noaua.com

Aldizkari koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkarte@noaua.com

Publizitatea: Intza Salsamendi, publizitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbiet, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustin Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Zaloa Arnaiz, Jakoba Errekondo, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Denberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai.
Denborapasak: LUMA, O.E.

Bazkidetza: Aitziber Aranberri.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Zaloa Arnaiz, Agurtzane Solaberrieta, Joxe Luis Arrastoa, Alaitz Aizpurua, Aritz Gorriti.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo.

Elektrikaria: Iñaki Salsamendi.

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

IKA MIKA ATALEAN PARTE HARTU NAHI BADUZU, GOGOAN IZAN IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITUELA. ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, NOAUA!K IDATZI HORJETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU. IDATZIA ARGITARATZE-DATA BAINA ASTEBETE LEHENAGO EKARRI BEHAR DA.

NOAUA!K ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean eta, orohar, aldizkarian adierazirako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aurkibidea

MENDI ASTEA, AZKEN TXANPAN _____ **5. OR.**

LANTEGIAK HAUTESKUNDE GIROAN _____ **6. OR.**

XOMORRO, 15 URTEZ ESPETXEAN _____ **7. OR.**

ZUBIETA LANTZEN TALDEKOAK _____ **8. OR.**

IGANDEAN, SANTO TOMAS AZOKA _____ **10. OR.**

DBH1EKOAK ZABALEGIKO ESKOLAN _____ **18. OR.**

AURTENGO AZKEN KIROL PARTIDAK _____ **18. OR.**



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako
Foru Aldundiak
diruz lagundutako
aldizkaria

Euskal presoak



Euskal Herrira!



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



AINHOA AZPIROZ

Katalogoa ala catálogo?

- Haurrentzako jostailu eta jokoak: *Tito cuentacuentos*, *Super track city Spiderman*, *Paratas del Caribe*, *Super chuchelandia*, *¿Quién es quién?*...
- DVDak: *Heidi 52 episodios*, *Marco*, *Evasión en la granja*, *Los pitufos*, *Asterix y los vikingos*, *Al cole con Miliki*, *Vecinos invasores*...
- CDak: Melendiren *Mientras no cueste trabajo*, Operación triunfo, Paulinaren *Ananda*, Isabel Pantojaren *10 de boleros y una canción de amor*, David Bisbalen *Premonición*, *La edad de oro del pop español*, Luis Miguelen *Navidades Luis Miguel*...
- Haurrentzako liburuak: Ez dago ezer.
- Helduentzako liburuak: *La catedral del mar*, *Ines del alma mía*, *La fortuna de Matilda Turpin*, *Gran recetario de Carlos Argüñano*...

¡Me lo pido!

Eroskiko jostailuen katalogotik hartua.

- Haurrentzako jostailu eta jokoak: *Animalien alfabetoa*, *Auskalo euskal tribiala*, *Piratak altxoraren bila*, *Familien karta jokoa*, *Nor da nor? II*...
- DVDak: *Heidi hirian*, *Marko*, *Vickie bikingoa*, *Triki traka triki tron 7*, *Braceface burdin aho 2*, *Balto*, *Azti ikaslea*, *Zatoz jolastera*...
- CDak: Oskorriren *Do re mi*, Pirritx eta Porrotxen *Maite zaitut*, Kautaren *Biluzik*, Bide Ertzeanen *Non dira*, Kerobiaren *Rose Escargot*, *Euskal bideo klipen bilduma 1 eta 2*, Ruper Ordorikaren *Memoriaren mapan*...
- Haur eta gazteentzako liburuak: *Bainuko animaliak*, *Munduko adiskiderik onena*, *Mozart eta txirula magikoa*, *Sagarmatha*...
- Helduentzako liburuak: *Orhipean*, *Mila eta bat gauen gauak*, *Ibrahim jauna eta koronaren loreak*...

Euskarazko produktuen katalogotik hartua.

Bi katalogoak jaso ditugu buzoian. Euskarazko produktuen katalogoa Euskal Herriko 96 udal mankomunitate eta elkartek egin dute. 0-16 urteko haur eta gazteak dauden etxeetan banatu da. Buruntzaldean, adibidez, 8.195 katalogo banatu dira.

Eroskiko katalogoa, berriz, etxe guztietan "buzoneatu" da. Katalogoak eskaintzen duena ikusita, argi dago estatu espainiar osorako katalogo berbera egin dutela, eta Extremadurako, Teruelgo edo Euskal Herriko biztanleoi produktu berberak erakusten dizkigutela. Bestela, ezin da ulertu Isabel Pantojaren CDa agertzea eta Fermin Muguruzaren, Benito Lertxundiren edo beste euskal abeslari edo talde batena ez azaltzea. Ez al ziren enteratuko Eroskikoak Durangoko Liburu eta Disko Azokan 360 produktu berri plazaratu direla aurten, eta horiez aparte aurreko urteetakoak ere badaudela?

Gero bakoitzak ikusiko du zer erosi nahi duen, baina gutxienez horren berri ematea... Hori da "gure Eroskik" erakusten duen errespetua euskararekiko eta euskal kulturarekiko.

Ainhoa Azpiroz - Aitor Landaluze - Luis Aranalde - Aritz Gorriti - Jakoba Errekondo - Nerea Zinkunegi - Idoia Torregarai - Jose Piñas

IKA MIKA ATALERAKO IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITU.

ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA,

NOAUA!k IDATZI HORIETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU.

NOAUA!k ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Hurrengo alea: abenduak 22.

Idatzia ekartzeko azken eguna: abenduak 18.

LATAILLADE  **ITURGINTZA**

GASA
BEROKUNTZA
MANTENIMENDUA ETA
KLIMATIZAZIO INSTALAKUNTZAK

Arlztitxo 8, behea - 943 363 348 - 609 888 021

Patri Jatetxea



K/nagusia 14, ☎ 943 362 725

Kale nagusia, 10
Telf: 943 37 33 48
943 37 09 13

Okindegia - Gozotegia

LABE-GOXO

Mendi Astea 2006, azken txanpan

Patxi Usobiaga eskalatzaileari eta Zelanda Berriari buruzko ikus-entzunezko bana eta orientazio ikastaroaren lehen saioa. Andatza Mendi Elkartekoek antolatutako Mendi Asteko lehen ekitaldiak ospatu dira. Baina abenduaren 17ra arte, oraindik ekitaldi sorta ederraz gozatzeko aukera dago; Gashembrum II-ra euskal mendizale talde batek egindako espedizioa, orientazio ikastaroaren amaiera, Aiako Harrietara irteera eta gazteen ibilaldi neurtua.

Andatza Mendi Elkarteko kideek prestatu duten Mendi Asteko egitarauak aurrera darrai. Baina oraindik mendia eta kirola uztartzen dituen astea ez da amaitu. Hiru zizurkildarrek eta bi gasteiztarrek udan Karakorum mendilerroko Gashembrum II mendira egindako espedizioaren berri emango dute ostegun honetan, abenduak 14. Lau lagunek lortu zuten 8.038 metroko altuera duen gailurra zapaltzea.

Aiako Harrietara txangoa

Orientazio ikastaroaren bigarren saio teorikoak ekingo dio asteburuari. Bertan ikasitakoa Aiako Harrietan praktikan jartzeko aukera izango da. Goizean goiz frontoi atzetik autobusez egingo da Aritxulegirainoko bidea. Orientazio ikasgaiak landu ostean, aterpetxean bazkaltzeko bilduko dira. Goizeko orientazio saioan parte hartu ez arren, bazkarira edonor joan daiteke.



LARUNBATEAN AIAKO HARRIAK BISITATUKO DITUZTE.

Autobus eta bazkarirako txartelak salgai daude Benta tabernan 25 euroren truke. Ostiral honetan, abenduak 15, txartelak eskuratzeko azken eguna.

Gazteentzat, ibilaldi neurtua

Kirola, mendia eta gazteak lotuko dituen ekitaldiarekin amaituko da 2006ko Mendi Astea. Gazteen ibilaldi neurtua izango da. Goizeko 9:00tan frontoi atzetik abiatuko da. Antolatzaileek iragarri dutenez, ekitaldiaren amaieran opariak zozketatuko dira.

ARITZ GORRITI

Mendi Astea 06

Abenduak 14, osteguna
Aitziber Ibarbia eta Iñaki Urkola
"Xaldu": Gashembrum II
20:00etan Sutegin.

Abenduak 15, ostirala
Orientazio Ikastaroa II
19:00etan Sutegin.

Abenduak 16, larunbata
Mendi irteera Aiako Harriak
Goizeko 7:00etan frontoi atzean.

Abenduak 17, igandea
Gazteen ibilaldi neurtua
9:00etan frontoi atzetik.

ERRAZKIN
IGELTSERITZA
OROKORRA

Tel./Faxa: 943 365 125
Mobila: 649 435 470
kale Nagusia, 1. LISURBII

Zendoia



Kale Nagusia 35 - 943 37 40 71

txirriStra
KONTSEJU ZAHARRA 13
943 360 400

pintxoak
ogitartekoak
plateak, konbinatuak

TABERNA

Lantegiak, hauteskunde giroan

Aurten lantegi askotan egin dira hauteskunde sindikalak. Lau urtez behin egiten dira eta amaitzear den 2006 honetan 30 izan dira hauteskundeak egin dituzten enpresak. Datuei begira, LAB sindikatua nagusi da Usurbilen, 36 delegaturekin. ELA da bigarren, 35 delegaturekin.

Iaz, ELA zen nagusi Usurbilen. Baina berriki egin diren hauteskundeetan emaitzen arabera, LAB da orain nagusi. NOAUAk eskuratu dituen datuen arabera, bi sindikatuen arteko aldea oso txikia da.

6-30 langile arteko enpresetan, delegatu sindikal bat aukeratzen da. 31 eta 50 langile arteko enpresetan, 3 delegatu. Eta 50 langiletik gorako lantegietan komiteak osatzen dira.

50 langiletik gora dituzten enpresetan osatzen da langile-komitea. Aurten hauteskundeak egin diren lantegietan, horrela geratu da delegatu kopurua: Michelinen 23 delegatu, Luzuriagan 13 delegatu, Ingemarren 9, udaletxean 5, ikastolan 5, Savasan 5 eta San Estebango sendategian, 5.

Michelin da Usurbilgo enpresa



2006AN 30 IZAN DIRA HAUTESKUNDE SINDIKALAK
EGIN DITUZTEN LANTEGIAK.

handiena, alde handiarekin gainera. 2005eko datuekin alderatuz, LABek bikoiztu egin du bere ordezkaritza. Orain, sei dira LABek dituen delegatuak. CCOO sindikatuak delegatu bat galdu du baina lehen indarra izaten jarraitzen du. ELA da hirugarren, lau delegaturekin.

Hego Euskal Herriko datuei dago-

kionez, 20.000 delegatu baino gehiago aukeratu ohi dira lau herrialdetan. Ipar Euskal Herrian ere egiten dira, nahiz eta Hego Euskal Herriarekin egiten direnekin alderatuz, sistema ezberdina izan. Zentzu horretan, LAB sindikatua da Euskal Herri osoan ordezkaritza duen euskal sindikatu bakarra.

Usurbilgo hauteskundeak 2006

Hauteskundeak egin diren lantegiak	2005/12/31	2006/10/30
Zentsoa (langile kopurua)	33	30
LABeko delegatuak	34	36
ELAko delegatuak	37	35
CCOOeko delegatuak	15	12
UGTko delegatuak	9	8
ESKko delegatuak	6	6
Ez-sindikatuak	2	1
DELEGATU KOPURUA	103	98

Michelingo emaitzak

	2005	2006	Bataz beste
Zentsoa (langile kopurua)	1.653	1.495	-158
LABeko delegatuak	3	6	+3
ELAko delegatuak	4	4	0
CCOO delegatuak	8	7	-1
UGTko delegatuak	4	3	-1
ESKko delegatuak	2	2	0
Ez-sindikatuak	2	1	-1
DELEGATU KOPURUA	23	23	

Xomorro gogoan

Aginagakoak 15 urte egin ditu espetxean

Asteburu honetarako hainbat ekitaldi prestatu dituzte Aginagako Jai Batzordeak, Etxerat-ek eta Amnistiaren Aldeko Mugimenduak. Xabier Aranburu 'Xomorro'k 15 urte bete ditu espetxean eta Aginagako lagunek elkartasuna adierazi nahi diote.

Larunbatean, abenduak 16, arratsaldeko 16.00etan Mus Txapelketa jokatu da Aginagako soziedadean. Arratsaldean zehar, mural pintaketa ere egingo da.


Igandean, abenduak 17, herri bazkaria egingo da Aginagako frontoian. 14.00etan hasiko da bazkaria. Aurretik, bildutako guztiekin argazkia egingo da, egun horretan Xomorroren urtebetetze eguna baita. Menua haxe izango da: Langostinoak eta muskuiluak, arrain zopa, txuleta, postrea, kafea eta kopa. Tikitak salgai aurkituko dituzue Aginagako Zahar Egoitzan eta

Txiriboga tabernan. 20 euro helduentzat, 15 euro umeentzat. Bazkariaren ondoren, ekitaldia eta segidan dantzaldia hasiko da.

Xomorro 1991ko abuztuaren 17an atxilotu zuen Guardia Zibilak bere lantoki aurrean. Antolatzaileek aditzera eman dutenez, "tortura eta tratu txarrak jasan zituen. Geroztik hainbat espetxe pasa ditu baina denbora gehiena Herrera de la Manchakoan egin du (Usurbiltik 700 km-ra). Egun han dago. Epaiketarako trasladoetan, hirutan jipoitua izan da. Eraso larriena, 1993ko ekainaren 26an jasan zuen". Espetxean denbora gehien daraman herritarra da Xabier Aranburu 'Xomorro'.

Presoen aldeko Olentzero

Gabonak gainean ditugu. Aurten ere, abenduaren 24an presoen aldeko Olentzeroa antolatuko du Etxerat-ek. Egun honen inguruko xehetasun gehiago aurrerago emango dira.



ESPETXEAN DENBORA GEHIEN DARAMAN HERRITARRA DA "XOMORRO".

Elkartasun Eguna Aginagan

Abenduak 16 larunbata

16:00etan mus txapelketa Aginagako soziedadean. Arratsaldean zehar, mural margoketa.

Abenduak 17 igandea

Bazkal aurretik, Xomorroren urtebetetze argazkia aterako dute. 14:00ak

aldera, herri bazkaria Aginagako frontoian. Tikitak, Aginagako Zahar Egoitzan eta Txiribogan egongo dira salgai. Ondoren, dantzaldia.

Antolatzailea: Aginagako Jai Batzordea, Usurbilgo Amnistiaren Aldeko Batzordea eta Etxerat.

Larunbat honetan EHNA eskuratzeko aukera berri bat

Nazioarteko Giza Eskubideen Eguna abenduaren 10ean izan zela gogoan hartuz, Udalbiltzak euskal herritarren naziotasun eskubidea errei-bindikatzeko hainbat ekimen prestatu ditu asteburu honetarako. Horrela bada, Euskal Herriko Naziotasun Aitormena (EHNA) tramitatzeko aukera izango da herrietan. Usurbilen, larunbat honetan, goizeko 11:00etatik 13.00ara, udaletxe aurrean.

Gogoratu hiru argazki, errolda agiria, adin-txikikoentzat familia liburuaren fotokopia eta 15 euro behar direla tramitazioa egiteko.

www.noaua.com
USURBILGO ATARIA

ALIPROX
Kale Nagusia 10
☎ 943 361 182
USURBIL

Industri eta iragarri
SERIGRAFIA
TANPOGRAFIA
OSU
943 371 954
USALDEA POL.36-2-USBIL

MIKEL
IZAGIRRE
ELEKTRIZITATEA
943 365 095
609 068 111
GOIZ ARGITXEA, 37. KALEZAR

Zubieta Lantzen herri plataforma

“Herritarrak alternatiben alde lan handia egiten ari dira; erakundeak baino gehiago”

Duela aste batzuk zabaldu zuten egoitza berrian jarri zuten hitzordua NOAUA!k Zubieta Lantzeneko kideekin. Lasarte-Oriako mobilizazio ekitaldi jendetsua, gai honen inguruan erakundeek izan duten jarrera edota udal hauteskundeei begira abian jarri nahi duten ekimena ahotan hartu dituzte.

Milaka herritar bildu zituen azaroaren 25erako errausketaren aurkako plataformek deitu zuten manifestaldian. Tartean ziren Zubieta Lantzeneko kideak ere. Haien hitzetan, “orain arte izan den jendetsuena izan zen”. Lasarte-Oriako kaleak zeharkatu zituzten herritarren artean ziren, Udaleko alkate Ana Urchuegia eta zinegotziak. Alkateak erraustegia Zubietan kokatzearen aurka zegoela adierazi zuen; ez ordea, hondakinak tratatzeko sistemaren aurka. “Manifestaldira joandako hainbat plataformetako kideak irainduta sentitu ziren”, gogoratu dute Zubieta Lantzenekoek.

Erraustegia Zubietan kokatzeko bi proposamen zeuden; Abalotz eta Zubietako Gaina izenez ezagutzen diren guneak hain zuzen. Proiektua aipatutako azken gune horretan eraikitzea onetsi dute. Baina gogoratzen dutenez, “ez dago ezer definitua; erabaki politikoa soilik”. Gunearen inguruan adostutako azken erabakia dela ziurtatu dute. “Zubietan ez bada egiten, ez da beste inon egingo”, adierazi dute. Edonon kokatuta ere, sistema gisa daude haren aurka.

Abiadura Handiko Trenaren gaian, proiektu horren aurkako herritar taldeek gai horren inguruko eztabaida falta eta herritarren iritzia kontuan ez hartzea salatu izan dute behin baino gehiagotan. Erraustegiaren gaiarekiko paralelismo ugari ditu. “Herritarrei hitza ez baitzaie ematen”, gogoratu dute.



ZUBIETA LANTZEN PLATAFORMAKO KIDEAK, FRONTOI ATZEKO LOKALEAN.

Udalaren jarreraz

“Usurbilgo herriak ez du errauskailurik nahi”, Zubieta Lantzenekoen hitzetan. Haien esanetan, Usurbilgo Udaleko alkate Luismari Ormaetxeak gai honetan beste erakundeetatik agindutakoa errespetatu du, baina Usurbilgo herriak egin nahi duena ez du galdetu. “Herritarrei kalte egingo dion azpiegitura bat onartzeko prest ote dagoen jakin nahi genuke”, adierazi dute.

Herritarren nahia errespetatuko ote duten zalantzak dituzte. Horregatik, 2007ko maiatzean izango den bozketa egunera aurkeztuko diren alderdi politiko guztiei gai honen inguruan duten iritzia argitzea eskatuko diete. “Alderdi politiko guztien hauteskunde programetan gai honetan duten iritzia ematea eskatuko diegu”, iragarri dute.

Erraustegiaren alternatibak

Herri plataformek hondakinak tratatzeko sistema gisa erraustegia erabiltzearen aurkakotasuna adierazi izan dutenean, alternatiben beharra azpimarratu izan dute. Teknikari talde batek ere

gaiari buruzko txosten bat egin du. Hondakinak ondo bereizteaz jardun dute. “Gaikako eta etxez etxeko bilketa egitea da funtsezkoena”, gogoratu dute Zubieta Lantzenekoek. Bildutako guztia %40 materia organikoa dela kalkulatu, hori guztia, taldearen hitzetan, “ongarri gisa erabili ahal izango da”.

Alternatibak abian jarrita, errausteko zabor gutxi izango zen. “Ehuneko hamar inguru. Horrekin ez dago errauskailua egiterik”, baieztatu dute. Horregatik, erakundeek alternatibak zailtzat jotzen dituztenean, “gogoratu nahi dugu herritarrek asko egiten ari direla horien alde; erakundeak baino gehiago”. Erraustegia orain egitea erabakiko balitz, proiektua gauzatzeko bost urte beharko lirakeke. Zubieta Lantzeneko kideek tarte horretan alternatibak abian jartzeko denbora dagoela diote. Horregatik, herritarrek ordezkatzen dituztenei dei egiten diete: “Zaborrak gutxitu eta berrerabilpena bultzatzeko has daitezela legeak aplikatzen”.

Kontxi Urdanpilleta babarrun ekoizle zubietarra

“Lekua, lur mota, babarrunaren itxuran erabakigarria dela uste dut”

Tolosako babarrunak ederrak dira. “Baita handik kanpo ekoizten direnak ere”. Hala dio, Kontxi Urdanpilleta zubietarrak. NOAUA!k antolatutako azken bi urtetako Santo Tomas azoketan, babarrun lehiaketako irabazlea izan da. Abenduaren 17kora ere aurkeztuko da.

NOAUA. Bitan saritu dituzte zuen babarrunak, zein da sekretua?

Kontxi Urdanpilleta. Sekreturik ez du. Hazia bota eta etortzen dena. Baina soroak zerikusi handia du. Babarruna ederra da.

N. Aurten ere lehian izango da zuen ekoizpena. Nola dator aurtengo uzta?

K. U. Niri ona suertatu zait. Iazkoa baino askoz hobea. Euririk ez zuen egiten, lehorraldiarekin gelditu egon zen. Gero loraldia etorri zitzaion. Heldu baino lehen hego haizea sartu zuen. Bi lursailetan izaten dugu babarruna. Ondorioz, ditugun bi lur eremuetako batek ez du hain babarrun ona eman; besteak, primerakoa, beranduxeago heldu arren. Nik uste dut lurra eragiten duela. Soro bat ibai ondoan dugu eta hark primerako uzta izan du. Gorago dugun besteak, ez du behar bezalako uzta eman. Desberdintasuna nabari da. Hala ere, beste ekoizle batek erriberan ekoizitakoa egosi egin zitzaiola esan zigun. Soro osoa egosi zitzaion. Gure lur eremutik ehun metro baino gutxiagora zegoen.

N. Babarrun onak nolakoa behar du zure ustean?

K. U. Batzuk oso garbia ekartzen dute, olio botata dutela dirudi. Iaz ikusi nituen beltz beltzak ziren babarrunak. Nirea ez da hain beltza. Gorrixegoa da. Babarrun beltz horiek leka askoz luzeagoa dute. Gure leka



AZKEN BI LEHIAKETETAN NAGUSITU DA KONTXI URDANPILLETA. IRUDIAN, 2005EKO BABARRUN EKOIZLE ONENAREN TXAPELA BURUAN DUELA.

borobilagoa da. Baina denetik dago. Lekua, lur mota, babarrunaren itxuran erabakigarria dela uste dut.

N. Ekoizten duzuen jendeak ikusteko aukera paregabea eskaintzen dute horrelako azokek?

K. U. Bertatik bertara gainera. Aurten, Tolosara ere eman nahi nituen. Baina deitu nuen eta lehiaketan parte hartzeko bazkide izan behar nuela esan zidaten. Kofradian egon behar nuela.

N. Babarruna zuen baserrian. Aspaldiko kontua?

K. U. Ni jaio nintzenetik. Gu jaio ginenerako babarruna ekoizten zen gure etxean. Aurten, ordea, uztekoan gabilta. Besteen sailean egiten dugu lan gehiena, beste lur eremua etxekoa da. Nagusia nire anaia da. Berak 71 urte ditu eta utzi egin nahi du. Hala ere, etxeko lur sailean jarraituko dugu.

N. Hainbeste denboran, babarruna lantzeko moduak aldatuko ziren?

K. U. Arto tartean egiten dugu. 65 urte betetzera noa eta denbora honetan guztian gure etxean ez da babarrunik falta izan. Beti egon izan da. Baina orain adina ez. Garai batean, gutxiago ekoizten zen.

N. Askotan produktu horiek mimo berezia behar izaten dute?

K. U. Batzuek botika botatzen diote; guk sekula ezer ez. Lurrari zima asko ematen diogu, gainerakoan ongarririk ez du izaten gure lurra. Ezta ezer ere.

N. Zuek landutakoa dastatzeko aukera dago, ezta?

K. U. Dendatara joaten gara eta jendea gure etxera ere etortzen da. Kanpotik babarrun asko dator eta horrek itzal handia egiten du. Baina aurten abendurako 200 kilo saldu dira jada. Iaz, guztira kopuru bera saldu genuen. Lasarteko dendatan saltzen dugu gehien bat.

Sagardo eta babarrun lehiaketan parte hartzeko epea zabalik dago oraindik

Babarrun lehiaketa

Parte hartzaile bakoitzak 1kg babarrun aurkeztu beharko du. Kg bakoitzeko 12 euro ordainduko zaizkio.

Babarruna epaitzerakoan, ezaugarri hauek hartuko dira kontuan:

- **Itxura:** osorik edo hautsita dagoen, zimurrak...
- **Kolorea:** zenbat eta beltzagoa (more ilun ia beltza) izan orduan eta hobeagoa.
- **Berdintasuna:** tamainaz, kolorez... elkarren berdinak izatea.
- **Dizdira:** beste babarrun beltzetatik bereizten duen berezko dizdira izatea. Berezko dizdira hau beste edozein produktarekin (olio, abrilantadore...) estali edo aldatua izaten bada, lehiaketatik kanpo geratuko da partehartzailea.
- **Garbitasuna:** babarruna ez den bes-

telako partikula arrotzik ez izatea.

Lehen saria: 120 euro + trofeoa.
Bigarren saria: 60eur o. Hirugarren saria: 40 euro.

Sagardo lehiaketa

Sagardotegiek ez dute lehiaketa honetan parte hartuko.

Sagardoa etxean egiten duenak herriko plazara ekar dezake herritarrek proba dezaten. Nahi duenak, egunean bertan egingo den lehiaketan ere parte har dezake. Partaide bakoitzak (lehiaketan parte hartzen duenak eta ez duenak ere bai) 10 botila ekarri beharko ditu, eta botila bakoitzeko 1,5 euro ordainduko zaio.

Lehen saria: 120 euro + txapela.
Bigarren saria: 60eur o. Hirugarren saria: 40 euro.



IAZ BEZALA, SAGARDOA DASTATZEKO AUKERA IZANGO DA.

Izena emateko azken eguna abenduaren 14a izango da. Baldintzak eta gai-nontzeko zalantzak argitzeko deitu NOAUA!ko bulegora (943 360 321).

- Izen ematearekin batera, lehiaketan parte hartuko duten babarrun eta sagardo botilak NOAUA!ko egoitzara ekarri beharko dira.

Txiriboga

Plater konbinatuak,
Olagarroa,
Txuleta ...

LASARTE
AUTOESKOLA

**Gazte Txartelarekin
deskontua**

**Matrikulatzeagatik
kotxe baten
zozketan
parte hartuko duzu**

Zorionak eta
urte berri on!

943 36 27 93,
Usurbilen

Santo Tomas eguna ospatzeko **deialdia**

**Noaia!k herritar guztiak
gonbidatu nahi ditu**



Herritarren sargardoa
dastatzeko eta babarrunak
ikusteko aukera izango da.
Aurten ere lehiaketa
bikaina izango dugu.



Abenduaren **17an**
igandegoizez



100% Usurbilgo Sagardo Eguna



Noaia!
Kultur elkartea



GIZA ESKUBIDEAK BAI!

GIZA ESKUBIDEEN DEKLARAZIO UNIBERTSALA (1948)

“Kontutan izanik munduko askatasuna, justizia eta bakea giza familiako kide guztien berezko duintasunean eta eskubide berdin eta ukaezinetan oinarritzen direla.

Kontutan izanik giza eskubideak ez eza-gutzearen eta gutxiestearen ondorioz, giza kontzientziari irain egiten dioten basakeriak gertatu izan direla eta gizon-emakumeek, beldur eta gabezia orotik aske, hitz egiteko askatasuna eta sinismen-askatasuna izango dituzten munduaren etorrera aldarrikatu dela.

Kontutan izanik ezinbestekoa dela giza eskubideak zuzenbidezko erregimen batek babestea, gizakia tirania eta zapalkuntzaren aurkako azken irtenbidea den matxinadara jo beharrean aurkitu ez dadin.

Kontutan izanik ezinbestekoa dela, baita ere, herrialdeen artean harreman lagunkoiak bultzatzea.

Kontutan izanik Nazio Batuetako kide diren herriek gizakiaren oinarritzko eskubideetan, gizakiaren duintasun eta balioan eta gizonen eta emakumeen eskubideen arteko berdintasunean duten fedea tinko azaldu dutela Agirian; eta, askatasunaren ikuspegi zabalago baten barruan, gizarte aurrerakuntza sustatzeko eta bizitza-maila jasotzeko erabakita daudela adierazi dutela.

Kontutan izanik Estatu Kideek, Nazio Batuen Erakundearekin elkarlanean, gizakiaren oinarritzko eskubide eta askatasunen begirune orokorra eta eraginkorra ziurtatzeko hitza eman dutela.

Kontutan izanik emandako hitza hori osotasunean betetzeko garrantzi handikoa

dela eskubide eta askatasun horiek berdin ulertzea.

Batzar Nagusiak, Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsal hau egiten du, herri eta nazio guztiek izan beharreko jomuga legez, bai norbanakoek, bai erakundeek, Aldarrikapen honetan etengabe oinarrituta, eskubide eta askatasun hauen begirunea bultzatzen irakaskuntzaren eta hezkuntzaren bidez, nazio mailan eta nazioarte mailan neurriak progresiboki hartuz, era eraginkorrean eta orokorrean ezar daitezen ziurtatzeko, bai Estatu Kideetako herrien artean eta baita horien eskumenpean dauden lurraldeetan ere.

1.- atala

Gizon emakume guztiak aske jaiotzen dira, duintasun eta eskubide berberak dituztela; eta ezaguera eta kontzientzia dutenez gero, elkarren artean senide legez jokatu beharra dute.

2.- atala

1. Gizaki orori dagozkio Aldarrikapen honetan adierazitako eskubide eta askatasunak, eta ez da inor bereziko arraza, larru-kolore, sexua, hizkuntza, erlijioa, politikako edo bestelako iritzia, sorteria edo gizarteko jatorria, ekonomi maila, jaiotza edo beste inolako gorabeheragatik.

2. Ez zaio begiratuko gainera, pertsona zein herrialde edo lurraldetakoa den; ezta hango politikari, legeei edo nazioarteko egoerari, nahiz eta herri hori burujabea izan, besteren zainpeko lurraldea, autonomiarik gabea edo nola-halako burujabetasun-mugak dituen.



3.- atala

Norbanako guztiek dute bizitzeko, aske izateko eta segurtasunerako eskubidea.

4.- atala

Inor ez da izango besteren esklabu edo uztarpeko; debekatuta dago esklabutza eta esklabuen salerosketa oro.

5.- atala

Ezin daiteke inor torturatu, ezta inori zigor edo tratu txar, anker eta lotsarazlerik eman ere.

6.- atala

Edozein gizon-emakumek du, nonahi, lege-nortasundun dela aitor diezaioten eskubidea.

7.- atala

Gizon-emakume guztiak berdinak dira legearen aurrean eta denek dute, bereizkeriarik gabe, legezko babesa izateko eskubidea. Denek dute Aldarrikapen hau hausten duen edozein bereizkeriaren aurka eta bereizkeria horren eragilean aurka babes berbera izateko eskubidea.

8.- atala

Pertsona orok du Konstituzioak edo legeek gizon-emakumeei aitortzen dizkieten oinarrizko eskubideak hausten dituzten ekintzetatik babesteko, norbere herrialdeko auzitegi aginpidedunetan errekurtsio eraginkorra jartzeko eskubidea.

9.- atala

Inor ezingo da arrazoirik gabe atxilotu, preso hartu edo erbesteratu.

10.- atala

Pertsona orok eskubidea du, berdintasun osoan, auzitegi burujabe eta alderdikierarik gabean jendeaurrean hitz egin eta zuzentasunez entzun diezaioten, nahiz bere eskubi-

de eta betebeharrak erabakitzeke, nahiz bere aurkako salaketa penalak aztertzeke.

11.- atala

1. Delituagatik salatutakoak eskubidea du errugabetzat jo dezaten, errudun dela legez eta jendeaurreko epaiketan frogatzen ez den bitartean. Epaiketan bere burua zaintzeko berme guztiak ziurtatuko zaizkio.

2. Egintzak edo behar-uzteak izandakoa, herrialdeko edo nazioarteko legeriaren arabera delitu ez baziren, ezingo da inor kondenatu. Delitua egitean ezargarri den zigorra baino larriagorik ere ezingo zaio jarri.

12.- atala

Ez dago arrazoirik gabe beste inoren bizitza pribatuan, familian, etxean edo postan eskusartzerik, ezta inoren ohore edo izen onari eraso egiterik ere. Nornahik du eskusartze edo eraso horien aurka legezko babesa izateko eskubidea.

13.- atala

1. Pertsona orok du joan eta etorri aske ibiltzeko eskubidea eta Estatu baten lurraldean bizilekua aukeratzekoa.

2. Pertsona orok du edozein herrialdetik alde egiteko eskubidea, baita norberetik ere, eta norbere herrialdera itzultzekoa.

14.- atala

1. Jazarpenik jasanez gero, pertsona orok du edozein herrialdetan babesa bilatu eta izateko eskubidea.

2. Eskubide horretara ezin izango da jo delitu arruntek sortutako auzibideko egintza baten aurka, ezta Nazio Batuen helburu eta erizpideen aurkako egintzak direla-eta ere.

15.- atala

1. Pertsona orok du herritartasuna izateko eskubidea.

2. Inori ez zaio arrazoirik gabe herritarta-



sunak kendu, ezta herritartasuna aldatzeko eskubidea ukatu ere.

16.- atala

1. Gizonek eta emakumeek, ezkontadinetik aurrera, ezkontzeko eta familia eratzearen eskubidea dute, arraza, herritartasuna edo erlijioetatik inolako mugarik gabe; eta, ezkontzari dagokionez, eskubide berberak dituzte bai ezkontuta jarraituz gero eta bai ezkontza-lotura ezabatuz gero ere.

2. Ezkongaien baimen aske eta osoz ez bada, ez dago ezkontzerik.

3. Familia da gizartearen oinarri jatorra eta berezkoa, eta Estatuaren eta gizartearen babesa izateko eskubidea du.

17.- atala

1. Pertsona orok du jabe izateko eskubidea, bakarka nahiz taldean.

2. Arrazoirik gabe, ez zaio inori bere jabe-goa kenduko.

18.- atala

Pertsona orok pentsamendu-, kontzientzi- eta erlijio-askatasunerako eskubidea du; eskubide horren barne da erlijio edo sinismena aldatzeko askatasuna eta baita norbere erlijioa edo sinismena bakarka nahiz taldean, jendeaurrean edo pribatuan irakaskuntzaz, ihardueraz, kultuz eta aginduak gordez azaltzeko askatasuna ere.

19.- atala

Gizabanako guztiek dute eritzi eta adierazpen-askatasuna. Eskubide horrek barne hartzen du erlijioa eta sinismena aldatzeko eta bakoitzaren eritziengatik inork ez gogaitzeko eskubidea, ikerketak egitekoa eta informazioa eta eritziak mugarik gabe eta nolanahiko adierazpidez jaso eta zabaltzekoa.

20.- atala

1. Nornahik du bakean biltzeko eta elkar-tzeko eskubidea.

2. Inor ezingo da behartu elkarte bateko kide izatera.

21.- atala

1. Pertsona orok du bere herrialdeko gobernuaren parte hartzeko eskubidea, zuzenean nahiz libre aukeratutako ordezkarien bitartez.

2. Pertsona orok du berdintasunez norbere herrialdeko funtzio publikoan sartzeko eskubidea.

3. Herriaren borondatea da botere publikoaren agintearen oinarria; borondate hori aldi-aldi egingo diren benetako hauteskundeetan adieraziko da. Hauteskundeak bozketarako orokor eta berdinez eta isilpeko boto bidez egingo dira, edo boto askatasuna bermatzen duen beste bide batez.

22.- atala

Pertsona orok du, gizartearen kide denez gero, gizarte-segurantzak izateko eskubidea eta, herrialdearen ahaleginaz eta nazioarteko laguntzaz, estatu bakoitzaren antolaketa eta baliabideak kontutan izanik, norbanakoaren duintasunerako eta nortasuna gartzeko ezinbestekoak diren ekonomi, gizarte eta kultura mailako eskubideak asetuta izateko.

23.- atala

1. Pertsona orok du lan egiteko eskubidea, lana aukeratzekoa, lan baldintzak bidezkoak eta egokiak izateko, eta langabeziaren aurkako laguntza jasotzekoa.

2. Pertsona orok du, bereizkeriarik gabe, lan beragatik lansari berbera jasotzeko eskubidea.

3. Laneko ari denak bidezko lansari eta aski zaiona jasotzeko eskubidea du, bai bera eta bere familia, giza duintasunari dagokion bezela bizitzeko bestekoa. Horretarako aski ez bada lansaria, gizarte-ko laguntzaren bidez osatuko da.



4. Pertsona orok du, norbere interesen alde egiteko, sindikatuak eratu eta sindikatuko kide izateko eskubidea.

24.- atala

Pertsona orori dagozkio atsedenerako eskubidea, aisiarakoa, lanaldiaren iraupen mugatua izatekoa eta aldian-aldian ordaindutako oporrak izatekoa.

25.- atala

1. Pertsona orok du bizimodu egokia izateko eskubidea, bai berari eta bere familiari osasuna eta ongi izatea bermatuko diena, eta batez ere janaria, jantziak, bizitokia, mediko-sorospena eta gizarte-zerbitzuak; eta baita lanik eza, gaixotasuna, elbarritasuna, alarguntasuna, zahartzaroa edo bizibidea nahi gabe galtzeko beste kasuren bat gertatzen denerako aseguroa izateko eskubidea ere.

2. Amek eta haurrek laguntza bereziak jasotzeko eskubidea dute. Haur guztiek, senar-emazteengandik nahiz ezkontzatik kanpo jaiotakoek, gizartearen babes berbera izateko eskubidea dute.

26.- atala

1. Pertsona orok du hezkuntza-eskubidea. Hezkuntza dohainekoa izango da oinarritzko ikasketei dagokienez behintzat. Oinarriko ikasketak egitea derrigorrezkoa izango da; heziketa teknikoa eta lanbiderakoa, orokorra; eta denek izango dute goimailako ikasketak egiteko aukera bera, norberaren merezimenduen arabera.

2. Hezkuntzaren elburua giza nortasuna guztiz garatzea izango da eta giza eskubideen eta oinarritzko askatasunen errespetua indartzea; herrialde, arraza eta erlijio guztien arteko elkar-ulertze, jasankortasun eta adiskidetasunaren alde egingo du; eta Nazio Batuen iharduna bultzatuko du, bakeak iraun dezan.

3. Gurasoek lehentasunezko eskubidea

izango dute seme-alabei emango zaien hezkuntza mota aukeratzeko.

27.- atala

1. Pertsona orok du eskubidea komunitateko kultur ekitaldietan aske parte hartzeko, artelanez gozatzeko, eta zientzi aurrerakuntzan eta horri darizkion irabazietan parte hartzeko.

2. Zientzia, literatura edo arte mailan egingako lanen egile diren pertsona guztiek dute horregatik eskubidea dagozkien interesak eta materialak babes dakizkien eskubidea.

28. atala

Pertsona guztiei dagokien eskubidea da, Aldarrikapen honetan azaldutako eskubide eta askatasunak era eraginkorrean garatuko dituen, gizarte mailako eta nazioarteko ordena ezartzea.

29.- atala

1. Pertsona orok komunitatearekiko betebeharrak ere baditu, komunitatea baita bere nortasuna guztiz eta era askean garatzeko toki bakarra.

2. Pertsona orok, dagozkion eskubide eta askatasunez baliatzeko orduan, gainontzeko herritarren eskubide eta askatasunen begirunea ziurtatzeko eta gizarte demokratiko bateko moral, ordena publiko eta ongizate orokorreko bidezko eskakizunak betetzeko, lege ezar daitezkeen mugak baino ez ditu izango.

3. Eskubide eta askatasun hauetaz ezingo da inor baliatu Nazio Batuen helburu eta erizpideen aurka.

30.- atala

Estatuari edo talde edo norbanakoren bati Aldarrikapen honetan bertan adierazitako edozein eskubide eta askatasun deuseztatzeko ekintzak edo ihardunak burutzeko eskubidea emateko ezingo da Aldarrikapen honetan jasotako ezertan oinarritu.

“Urgorriko Txomin” ipuin musikatua eskainiko dute Zumarteko Gabonetako Kontzertuan

Garai hauetan errotua dagoen Gohitura bati eutsiko diote aurten ere SuteGIN. Abenduaren 20an Gabonetako Kontzertua eskainiko dute Zumarteko eta haiekin batera, Lezoko musika eskolako eta Donostiako Kontserbatorioko ikasleek. Lehen aldiz, Zumarte Txiki Abesbatzakoek ipuin musikatu bat eskainiko dute; “Urgorriko Txomin” izeneko lana.

Hiru musika eskoletako kideak bilduko ditu datorren abenduaren 20an, SuteGIN ospatuko den gabonetako kontzertuak. Garai honetarako aproposak diren abestiez zein bestelako kanta herrikoiez osatutako errepertorioa eskainiko dute. Oholtza gainean izango dira Zumarteko, Lezoko Tomas Garbizu Udal Musika Eskolako eta Donostiako F.Escudero Musika Kontserbatorioko

ikasleak.

Zumarte Txiki Abesbatzakoek lehen aldiz, ipuin musikatu bat eskainiko dute; “Urgorriko Txomin” ipuina. Narratzailea bertan dela, ipuinaren nondik norakoak klarinete, flauta, biolina, gitarra eta baxu doinuekin nahastuko dira. Nagusiek, hainbat kanta herrikoi ahotan hartuko dituzte; “Uso zuria”, “Ikusi mendizaleak”, “Aita Semeak”...

Gabon kantak

Flauta orkestra osatu dute hilaren 20rako. Lezoarrek, donostiarrek eta usurbildarrek gabonetako abestiak joko dituzte; “White Christmas”, “Mesias Sarritan” edota “Haurtxo maite”. Emanaldia eskainiko den garaiarekin bat eginez, kontzertuan parte hartu duten ikasle guztiek “Hator, Hator” abestuko dute.

Baina agurreko kontzertua izango da.



KONTZERTUA ABENDUAREN
20AN EGINGO DA SUTEGIN,
ILUNTZEKO 19:30EAN.

Ekitaldian, Zumarte Txiki Abesbatza eta Zumarte Abesbatza zuzentze lanetan arituko den Iñaki Tolaretxipiren azken kontzertua izango baita. Zumartetik jakinarazi dutenez, “abesbatza abian jartzeko lan handia egin du”. Urte berriarekin Amaia Aldalurrek hartuko du bere lekua.

Kiki, Koko eta Moko pailazoak Santueneko ludotekan

1988 urtean, Munduko Zirkoko pailazo ikuskizunean parte hartu eta gero sortu zen hirukote hau, Kiki, Koko eta Moko bezala ezagunak diren pailazoak. Euskal Herrian eta Euskal Herritik kanpo urtetan aritu den hirukotea da haxe. Abenduaren 21ean, Santueneko ludotekan arituko dira.

Pailazo bakoitzak bere izakera du: Kiki pailazo jolastia duzue, Koko pailazo alaia eta Moko pailazo inozoa. Esketx ezberdinak aurkeztuko dituzte Santueneko emanaldian, zirkoko teknika-mota desberdinak baliatuz: monozikloa, joko malabarak, mazak, pilotak, diabolok... Hau guztia musikaz alaitua eta partaidetza



SANTUENEKO LUDOTEKAN ARITUKO
DIRA KIKI, KOKO ETA MOKO.

bultzatzen duten jolas eta dantzekin osatua.

Kiki, Koko eta Moko pailazoak

Noiz: Abendua 21, osteguna.

Non: Santueneko ludotekan, 18:30ean.

Sarrera: doan.

Izan zaitez

“Korrika laguntzaile”

AEK jada hasi da Korrikaren 15. edizioa prestatzen, hori dela eta dei egin diote euskal gizarteari hemendik lau hilabetera abiatuko den edizioaren antolaketa lanetan lagundu dezan. Horretarako, kanpaina bat abiatu du AEK-k, jendeari “Korrika laguntzaile” izan dadin animatzeko.

“Korrika laguntzaile” izateko bonoa eskuratzen duenak hamabi euroko diru-laguntza ematen dio Korrikari, eta Korrikak pin bat eta ehunka saltokitan beherapenak lortzeko txartela bidaliko dio etxera laguntzaileari. Bonoak Etumeta euskaltegian, Korrikaren korrika.net webgunean eta laguntzaile diren hainbat taberna eta dendatan eskura daitezke.

Korrikaren 15. edizioa martxoaren 22an abiatuko da Karrantzatik (Bizkaia) eta apirilaren 1ean amaituko da Iruñean.

Orrialdea bete eta NOAUA!ra ekarri edo telefonoz deitu: 943 360 321.

Bazkide egin zaitez!

Aurtengo azken partidak kirol taldeentzat

Herriko kirol talde desberdinek asteburu honetan agur esango diote 2006. urteari. Eskubaloiei nahiz futbol taldeek aurtengo azken jardunaldia jokatuko dute, hurrengo 2007. urtean sartu ondoren izango baitute. Eskubaloian lau taldeek Oiarde kiroldegian jokatuko dituzte euren neurketak larunbatean eta igandean eta futboleko Emakumezkoen ligako taldea izango da Haranen jokatuko duen bakarra.

1. Territorial mailako taldeak jokatuko duena izango da, agian, garrantzitsuenak. Seniorrek azken jardunaldian galdu zuten denboraldiko lehen neurketak beraiekin berdinduta zegoen Bergararen aurka eta asteburu honetan 3. postuan kokatuta dagoen Ormaiztegi taldea izango dute aurrez aurre. Usurbildarrek 2 puntuko aldea dute Goierriko taldearekiko eta garaipena lortuko balute lehenengo bi postuak eskuratzeko aukera handiekin ekingo lieke 2007. urteari, 4 puntuko aldea izango bailukete.

Jubenil mailako taldeak, aldiz, Donibane Eskubaloia Pasaiako taldearen aurka neurtuko ditu indarrak Oiardean. Hauek ere azken jardunaldian galdu



zuten denboraldiko lehen partida momentu honetan lidergoan dagoen Ereintzaren aurka eta garaipenaren bidea berreskuratzea izango dute helburu multzoan azken postuan kokatuta dagoen taldearen aurkako norgehiagokan.

Sailkapenaren erdialdean kokatuta dagoen kadete mailako mutilen taldeak Aloña Mendi izango du aurrez aurre jardunaldi honetan eta nesken taldeak azken postuan dagoen Grosekoren aurka jokatuko du Gipuzkoako txapelketako azken faseko partida.

Futbolari dagokionez, Usurbil Futbol Taldeko Emakumezkoen ligako taldearen neurketa izango da asteburu hone-

tan Haranen ikusi ahal izango den neurketa bakarra. Larunbatean arratsaldeko 15.30etan hasita Donostiako Intxaurdi taldearen aurka jokatuko dute herriko neskek.

1. Erregional mailako taldeak, aldiz, Eibarri bidaiatu beharko du Eibartarrak taldearen aurkako norgehiagoka jokatze-ko. Talde hau sailkapeneko 3. postuan kokatuta dago eta usurbildarrak, berriz, atzeko postuetatik atera ezinik dabilta. Azkenik, 1. jubenil mailako taldeak Texas-Lasarte Oriaren aurka jokatuko du Michelinen.

JOSU ARANBERRI

Imanol Mujika eta Eneko Harreguy, Orioko zaldi lasterketan



Imanol Mujika eta Eneko Harreguy herritarrak Orioko San Nikolas jaia zirela eta bertako hondartzan pasatzen ostegunean egin zen zaldi lasterketan parte hartu zuten. Hantxe zen Pello Saizar ere, Pello arraindegiko nagusia. Imanol eta bere zaldia ohikoak bihurtu dira hone-



lako lasterketetan azken hilabete hauetan eta Orion finale-rako sailkatzea lortu zuten beren txandan 2. postua eskuratu ondoren. Eneko Harreguyk, berriz, kontsolazioko lasterketarekin konformatu behar izan zuen, ez baitzuen finale-rako txartela lortu.

Urte zahar gaia pasa da

Inoiz baino goizago eta inon baino lehenago. Dagoeneko Usurbilen urte zaharrari agur esan eta urte berriari ongi etorria eman zaio. Herritar ugari bildu ziren abenduaren 11n Dema Plazan. Algara eta oihu artean agurtu zituzten Txiriboga taberna gaineko balkoira agertu zirenak. Aurpegi ezin ezagunagoak, ospatu beharreko unerako ederki jantzita. Bertan zeudenak Euskal Telebistako Wazemank saioko pertsonaiak ziren; Mañukorta edota atsoak.

Hain zuzen, saioko lan taldeak lehenagotik egin izan duen bezala, Urte Zaharretako sketx bat grabatzeko dekoratu gisa Usurbil aukeratu zuen. Duela bi astetik umorezko saioko arduradunek Dema plazara agertzeko dei egiten zieten herritarrei. Eta hotzari aurre eginez, batek baino gehiagok erantzun zion gonbidapenari. Abenduaren 31ko gaia bitan ospatzeko aukerarik ez baitago urtero.



TXIRIBOGA TABERNAKO ERAIKINA EZOHICO TELEBISTA DEKORATU BIHURTU ZEN ABENDUAREN 11N.

Rock doinuak iruditan

80ko hamarkada bukaeratik gaur egunera arte egindako argazkiak dira Ikor Kotx (Jon Urbe) argazkilariak "Rock&Klik" liburuan bildu dituenak. Musika taldeen eta musikarien argazkiak guztiak, gehienak zuzenekoetan egindakoak, guztiak Ikor Kotxen begiak eta pultsuak aukeratu, eta betirako izoztuta gelditu diren momentuak, errepikaezinak.

Euskal Herriko musikagintzaren historian ezinbestekoak diren talde asko harrapatu ditu Jon Urbe argazkilariak: txikiak, handiak, ibilbide luzekoak, iraupen laburrekoak, iraunkorrak, ahaztezinak... Horrez gain, gure lurrak, eszenatokiak eta ikusleen berotasuna dastatu dituzten hainbat atzerritarren bisitak ere haiei batu dizkie.

Lan honek ez du Euskal Herriko musikagintza guztia argazkietan batu



nahi, ez du hori helburu, baina ekimenez hain aberatsa den herrialde honetako eszenatokietan azken 18 urteotan gertatutakoaren lekuko garrantzitsua da. Horren baitan, diziplina garrantzitsu horretan Euskal Herriak eman dituen musikari karismatikoetako asko ere klik horrek harrapatu ditu, bere saltsan, bere mozorroan, bere keinuan, bere esentzian.

Zuberoako ikastolen aldeko otarrak salgai

Iparaldeko ikastolen egoera dela eta, beharrak asetzea zeregin erraza ez denez, Aloseko Basaurioko ikastola eta Sohütako Eperra ikastolako gurasoek ondoko proposamen goxoa egiten digute hurbil ditugun Gabon eta Olentzero egunei begira. Zuberoako produktuak dituzten otarrak prestatu dituzte. Txirristan eta Txiribogan daude otarrak eskatzeko orriak.

Aukeran, bi otar ditugu eskura.

Irati otarra, 48 euro: ardi gazta, ezitia, patea ahate gibelarekin, Bixkotx gailetak, Zuberoako patxarana.

Ahusqui otarra, 35 euro: ardi gazta, ezitia, patea ahate gibelarekin, Bixkotx gailetak.



Agenda !

Abenduak 14, osteguna

- Aitziber Ibarbia eta Iñaki Urkola
"Xaldu"ren ikusentzunezkoa:
Gashembrum II. 20:00etan Sutegin.

Abenduak 15, ostirala

- Pello Añorga ipuin kontalaria,
18:00etan Sutegiko Haur Liburutegian.
- "Orientazio Ikastaroa II", 19:00etan
Sutegin.

Abenduak 16, larunbata

- Mendi irteera: Aiako Harriak. Irteera
goizeko 7:00etan frontoi atzetik.

Abenduak 17, igandea

- Gazteen ibilaldi neurtua, goizeko
9:00etan frontoi atzetik.
- Sagasti eta sagardotegi arteko ibilaldia.
9:00etan frontoi atzetik.
- Santo Tomas azoka. Goizean, fron-
toian. Sagardo eta babarrun lehiaketak.

Abenduak 20, asteazkena

- Gabonetako kontzertua, 19:30ean
Sutegin. Zumarte Musika Eskola.

Abenduak 21, osteguna

- Kiki, Koko eta Moko pailazoak.
18:00etan Santueneko ludotekan.

Abenduak 23, larunbata

- Pirritx eta Porrotx pailazoak Oiardo
kiroldegian. 16:30ean lehen saioa;
18:30ean bigarren saioa. Sarrera, aldez
aurretik, 4,5 eurotan Mahukan eta
Bordatxon salgai. Takilan, 5,5 euro.

Abenduaren 20an manifestazioa

Ezker Abertzaleak deituta,
"Autodeterminazioaren alde, baldintza
demokratikoak" lelopean manifestazioa
20:00etan frontoi atzetik abiatuta.

Jon Sarasua eta Maialen Lujanbiorekin hitzaldi-afaria Aialde Berrin

Sagardo Egunaren Lagunak taldeak antolatu du hitzaldi-afari interesgarri hau. Abenduaren 14an egingo da, osteguna, iluntzeko 20:00etan Santueneko Aialde Berri sagardotegian. Hitzaldia eta gero hasiko da afaria. Txartelak 25 eurotan daude salgai. Egunean bertan ere, Aialdera gerturatu eta eskuratu ahal izango dira. Ekitaldi honekin amaituko dira Usurbilgo Sagardo Egunaren 25. urteurreneko ospakizunak.

Bai, ondo irakurri duzu. Jon Sarasua Aialde Berrin egingo den hitzaldi-afarian izango da. Plazak aspaldi utzi zituen baina Sagardo Egunaren Lagunak taldearen eskutik, gure artean izango da abenduaren 14ko ekitaldian.

ABENDUAK 14 OSTEGUNA

"20:00etan hasiko da
Sagardo Egunaren Lagunak
taldeak antolatu duen
ekitaldia"

Aialde Berrin eskainiko duen hitzaldian ez da bakarrik izango. Aldamenean izango du Maialen Lujanbio. Gaia, haxe: "Bertsogintzak puntua jarri zigun". Bien solasaldia pizteko gaia izango da.



JON SARASUA ETA MAIALEN
LUJANBIO AIALDE BERRIRA
HURBILDUKO DIRA.

Hitzaldi-afaria

NOIZ: Abenduak 14 osteguna
Aialde Berrin, Jon Sarasua eta
Maialen Lujanbio. 20:00etan hitzal-
dia, 21:30ean afaria.

AFARIKO TXARTELA: 25 euro.

J. ORBEGOZO
ITURGINTZA • GASA • BEROKUNTZA
BIZKARRA 1, 1.EBK 943372937 • 659602789

teilatuak eta fatxadak
JOSE AIZPURUA UNANUE
Obaba kalea 29 • ASTEASU
943 69 68 52 • 620 800 186

ETXEBIZITZA

- Usurbilen pisu bat alokairuan hartuko nuke. Tf: 630 032 779.

SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Moto bat saltzeko, Richoo RR beltza, 49 cm3. 649 302 733 (David). Ondo zaindua, "extra" asko ditu.
- Trastero bat alokairuan hartuko nuke Usurbil edo auzoetan. 687 706 081.
- Garaje itxi bat alokatuko nuke Usurbilen. 664774024.
- 80.000m2ko lursaila salgai. Ura eta bertarainoko bidearekin. 664774024.

LANPOSTUAK

Lan-eskaerak

- Emakume bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko, pertsona helduak zein haurrak zaintzeko. 630274906
- Emakume bat eskaintzen da umeak edo pertsona helduak zaintzeko. 676221378.
- Neska bat eskaintzen da umeak zaintzeko zein etxekolanak egiteko. Egun osoko disponibilitatea. 679742413.
- Bi emakume eskaintzen dira goizez bi orduz lan egiteko. 659879040 / 943 365 737.
- LH eta DBHko klaseak ematen ditut euskaraz zein erdaraz. Magisteritza ikasia eta esperientziaduna klase partikularrak ematen. 635209193.
- Portalak eta eskailerak garbitzeko neska bat eskaintzen da. Esperientzia horrelako lanean. 690 784 113.
- Oporretako, ospakizunetako, edozein mota-tako bideoak montatzen dituen profesionala eskaintzen da. 943555835/ 617242660.

Lan-eskaintzak

- Kamarero edo kamarera euskaldun bat behar da Zumeta jatetxean. 943 36 27 13.

- Arratsalde etxeko lanak egiteko emakume baten bila gabiltza 645403905.

BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Mercedes Vito Mixta 112CDI bat saltzen dut. Aire egokitua, kristal tintatuak, bigarren bateria, berogailu autonomoa, aurreko eserlekuak birikariak, dena hornitua, ASR... Interesatuak deitu 610431999
- Azaroak 19an Kale Nagusian, Arratoi Txakur marroi ilun bat aurkitu da. Galdu duenak deitu 659883912 telefonora.
- Faema markako lau besoko kafetera bat daukat salgai. 645708191.
- Citroen Sahara 2000 HDI VTS Cupe bat daukagu salgai. Oso ondo zaindua eta beti garajea egondakoa. Extra asko ditu. 667272889
- 5 urte dituen Renault Megane Coupe bat daukat salgai. 637760852.
- Bizirik edo jateko garbituta antxumeak daukat salgai. 664774024
- Tximenearako egurra salgai. Akazia, pinua eta pagoa. 664774024.
- Bertako babarrun beltza eta baserriko oilas-koak saltzen ditut modu onean. Interesatuak deitu: 664774024.
- Benta tabernan lan egin nahi baduzu deitu: 685757962.
- Citroen Berlingo bat, kamara isotermikoduna kondizio onetan daukagu salgai. 676453176.
- Snow egiteko tabla bat fijasioekin salgai. 679185102
- Terrenoa landatzeko erosi nahi dut, edifikatzeko ez. Tf: 943 36 11 09.
- Argazki zaharrak berritzen eta txukuntzen dira, baita ezkontza, opor edota beste edozein ospakizunetako bideoak editatu ere. E-maila profesionala, modu onean. 617242660 / apore@euskalnet.net
- Bustner Fun modeloko 5 pertsonentzako karabana salgai. Tf. 629 680 214.

Eguneko goardiako farmaziak

Abenduak 14, osteguna
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Abenduak 15, ostirala
De Miguel, Nagusia 32 Lasarte

Abenduak 16, larunbata
Iturralde, Bordaberri 1 Usurbil
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Abenduak 17, igandea
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Abenduak 18, astelehena
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Abenduak 19, asteartea
Gil, Nagusia 24 Lasarte

Abenduak 20, asteazkena
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Abenduak 21, osteguna
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Abenduak 22, ostirala
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Abenduak 23, larunbata
Oa Kontzeju Zaharra 11 Usurbil
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Abenduak 24, igandea
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
Aizpuru Farmazia, Latsunbeberri 11,
Hernani. 943 336 077 (Urte osoan).

2006ko egutegi osoa: www.noaua.com

HILDAKOAK

- Maria Intxausti Azurza
Azaroaren 30an hil zen
76 urterekin Kalezarren.



Juan Azurmendi Larrea
Abenduaren 8an hil zen
94 urte zituela, Kalezar.

JAIOTAKOAK

- Hugo Ramos Cobo
Abenduaren 1ean.

Txerrimunik ordainetan

Zorionak Patxi eta Eider!
Aitak abenduaren 6an eta Eiderrek 8an egin dituzue urteak. Besarkada bero bat eta muxu potolo bana amaxoren partez.



Zorionak preziosa! Non dakazu tarta goxua? Hemen prest gaude jateko Arrate. Ondo pasa Mari tomasa. Aita eta familia partetik zorionak!



Zorionak Irati!
Abenduaren 4an, sei urte bete zenituen. Zorionak eta muxu handi bat etxekoan partez.



Zorionak Josu! Ze azkar pasatzen den denbora. Zorionak zure familiako partaide guztien aldetik zure 26 urtebetetze egunean!



Zorionak Pottolo!!

Aurten zure hirugarren urtebetzea izan da eta oso pozik gaude zurekin ospatu dugulako! Beti bezain politta jarraitu Potxolito! Muxu asko famili guztiaren partetik.



Abenduaren 30an egingo dituzu urteak eta bi matraka hauen partez
Zorionak Jexux!
Jexux Agi, Jon P. eta Asierrek ere egingo dituzte urteak eta zorionak hauei ere.



Alkartasuna
Nekazaritza
Kooperatiba
Elkartea

Berogailuetarako gasoil zerbitzua prezio onenean



etxez
etxeko
banaketa

Eskaerak telefonoz ☎ 943 361 114 edo kooperatiba bertan

Alkartasuna Nekazaritza Kooperatiba Elkartea • Nekazaritza • Agrikultura • Elkartasuna • 943 361 114 • 943 361 114



Zarigorriak eta Urtehortzak

Urtinea Lorategia

Erabilgarria • ☎ 943 361 114 • Fax: 943 361 114 • urtehortzak@urtehortzak.es



10 urte elkarrekin

NOAUA! Kultur Elkarteko
bazkideoi, eskerrik asko



Zuei esker, hamar urteko ibilbidea osatu dugu. Orain arte, beti eskean ibili gara. Baina zuen laguntza eskertzeko garaia iritsi da. Urteurrena behar bezala ospatzeko, opari goxo bat egin nahi dizuegu bazkide guztioi. Gabonen atarian gaudenez, Gorrotxategi etxekoen turroia banatuko dugu, muxu-truk, bazkide guztien artean. Zorionak, berriz ere, eta on egin!

* NOAUA! Kultur Elkarteko bazkide bakoitzak turroi bat jasoko du. NOAUA!ko bulegotik pasa behar duzue turroia jasotzera. **Oparia jasotzeko azken eguna, abenduaren 22a.**